

GRADUA: Enpresa administrazio eta zuzendaritza **2022/2023 ikasturtea**

VIDRALAREN ANALISIA ETA KONPETENTZIAREKIKO KONPARAKETA

Egilea: XABIER LABAYEN IRAOLA
Zuzendaria: IVÁN ITURRICASTILLO

Gasteiz, 2023 ko ekaina/uztaila

LABURPENA

Gratu Amaierako Lan honek, Vidrala enpresaren urteko kontuek azkeneko urteetan izandako bilakaera aztertzen du eta ere berean, sektoreko beste bi enpresen egoerarekiko konparazioa egin da. Helburu nagusia, Vidralaren bilakaera ezagutzea izan da, emaitzatzat dituen faktore ekonomiko finantzario nagusien azterketa garatuz eta hauek jasandako eboluzioari gertatzearen arrazoi bat emanaz.

Lan hau garatzeko, Vidrala enpresaren azkeneko lau urteetako kontu bateratuak jaso dira “Comisión Nacional del Mercado de Valores” web orrialde ofizialetik eta “Microsoft 365”-k eskuragarri duen “Excel” tresnaren bitartez, ratioen azterketa garatu da. Bestalde, Espainiar merkatuko beste bi enpresa nagusien urteko kontuen informazioa bildu da “SABI” erabiliaz eta hiru enpresen arteko konparaketa bat egin da.

Emaitza deigarrienen artean, Vidralaren handitasuna azpimarratu beharra dago Iberiar penintsulako beira hutsa fabrikatzen duten enpresen merkatuaren barnean. Vidralaren bilakaera positiboa izan da hartutako datuen hasieratik, amaierarako denbora tartean; Hala ere, ratioen jaitsiera bat ikus daiteke urte hauetako zenbait parametrotan, bizitako pandemia eta gerratearen ondorioz eraginda eman direnak. Konpetenziari dagokionez, Verallia eta Ba Glass enpresen bilakaera guztiz desberdina izan da. Verallia-ren hazkundea ikus daitekeen moduan, Ba Glass-ek jaitsiera bat jasan du. Hala ere, lehen esan bezala, Vidrala izan da merkatuko liderra urte guzti hauetan zehar eta hazkundeari dagokionez ere beste bi enpresena baina handiagoa izan da. Vidrala, beste merkatu batzuetara zuzendutako espantsio prozesuan dagoela berretsi daiteke, konpetenziako beste bi enpresak, merkatu honetan hazte eta egonkortze prozesuan ari diren bitartean.

Hitz gakoak: Vidrala, analisia, azterketa, konparaketa, ondorioa.

RESUMEN

Este Trabajo Fin de Grado analiza la evolución de las cuentas anuales de la empresa Vidrala en los últimos años y realiza una comparativa con la situación de las otras dos empresas del sector. El objetivo principal ha sido conocer la evolución de Vidrala, desarrollando el análisis de los principales factores económicos financieros a los que da como resultado y dando una razón de que se deba a su evolución.

Para el desarrollo de este trabajo, se ha procedido a la recepción de las cuentas consolidadas de la empresa Vidrala, correspondientes a los últimos cuatro años, a través de la página web oficial “Comisión Nacional del Mercado de Valores” y a través de la herramienta “Excel” disponible en “Microsoft 365”, se ha desarrollado un análisis de ratios. Por otro lado, se ha recopilado la información de las cuentas anuales de las otras dos principales empresas del mercado español utilizando el “SABI” y se ha realizado una comparativa entre las tres empresas.

Entre los resultados más llamativos destaca la magnitud de Vidrala, dentro del mercado de empresas dedicadas a la fabricación de vidrio hueco en la Península Ibérica. La evolución de Vidrala ha sido positiva desde el inicio hasta el final de los datos obtenidos, aunque se observa un descenso de los ratios en algunos parámetros de estos años, producidos por la pandemia y la guerra vivida. En cuanto a la competencia, la evolución de Verallia y Ba Glass ha sido completamente diferente. Como se puede observar el crecimiento de Verallia, Ba Glass ha sufrido un descenso. De todas formas, como se ha comentado anteriormente, Vidrala ha sido durante todos estos años el líder del mercado y en crecimiento ha sido superior al de otras dos empresas. En el caso de Vidrala, se puede afirmar que se encuentra en proceso de expansión orientada a otros mercados, mientras las otras dos empresas de competencia están en un proceso de crecimiento y estabilización dentro de este mercado.

Palabras clave: Vidrala, análisis, investigación, comparación, conclusión

GRAFIKOEN AURKIBIDEA	3
ILUSTRAZIOEN AURKIBIDEA	4
TAULEN AURKIBIDEA	4
1. SARRERA	5
2. BEIRAREN SEKTOREAREN ANALISIA	5
3. VIDRALA S.A. ENPRESAREN AURKEZPENA	6
3.1. ENPRESAREN SORRERA ETA BILAKAERA.....	7
3.2. INFORMAZIOA ETA TAMAINA	9
4. ENPRESAREN EGITURA EKONOMIKO-FINANTZARIOA.....	10
4.1. ENPRESAREN EGITURA.....	10
4.1.1. Balantzea	10
4.1.2. Galdu Irabazien kontuak	12
4.2. ENPRESAREN POLITIKAK.....	13
4.2.1. Merkataritza politika.....	13
4.2.2. Pertsonal politika	14
4.3. BATAZ BESTEKO HELTZE AROA	14
4.4. ERROTAZIO FONDOA	17
4.5. DIRU FLUXUAREN EGOERA ORRIA.....	19
4.6. ERRENTAGARRITASUN RATIOAK	20
4.6.1. Errentagarritasun ekonomikoa	20
4.6.2. Errentagarritasun finantzarioa.....	22
4.7. KAUDIMENA	22
5. KOMPETENTZIAREKIKO KONPARAKETA	25
5.1. ANALISI EKONOMIKOA	26
5.1.1. Enpresen tamainak	26
5.1.2. Galdu irabazien konparaketa	26
5.1.3. Errentagarritasun ratioak.....	29
5.2. ANALISI FINANTZARIOA.....	30
5.2.1. Oreka finantzarioa	30
5.2.2. Likidezia ratioak	32
5.2.3. Kaudimen ratioa	33
5.2.4. Zorpetze ratioa	34
6. ETORKIZUNA.....	34
6.1. MERKATUAREN ETORKIZUNA.....	34
6.2. VIDRALAREN ETORKIZUNA	34
7. ONDORIOAK	35
8. BIBLIOGRAFIA	37
9. ERANSKINAK	39

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1: Langile kopuruaren eboluzioa	9
Grafikoa 2: Salmenten bilakaera	10
Grafikoa 3: Aktiboaren distribuzioaren eboluzioa	11
Grafikoa 4: Diruzaintzaren hazkundera	12
Grafikoa 5: Galdu irabazien azpitaldeen eboluzioa.....	13
Grafikoa 6: Merkataritza marjina gordina.....	13
Grafikoa 7: Produkzioaren bilakaera	14
Grafikoa 8: Aktibitate printzipaleko epe tartekak.....	14
Grafikoa 9: Hornikuntza epea egunetan	15
Grafikoa 10: Biltegiatze salmenta epea	16
Grafikoa 11: Kobru epea.....	16
Grafikoa 12: Bataz besteko heltze aroa	17
Grafikoa 13: Ustiapeneko errotazio fondoaren beharra.....	17
Grafikoa 14: Ustiapen jarduerako diru-fluxuaren bilakaera	19
Grafikoa 15: Inbertsio jarduerako diru-fluxuaren bilakaera	20
Grafikoa 16: Finantzazio jarduerako diru-fluxuaren bilakaera.....	20
Grafikoa 17: Ebitdaren bilakaera.....	21
Grafikoa 18: Marjinaren bilakaera	21
Grafikoa 19: Errentagarritasun finantzarioa	22
Grafikoa 20: Likidezia globalaren bilakaera.....	23
Grafikoa 21: Altxortegiaren bilakaera	23
Grafikoa 22: Erabilgarritasun ratioaren bilakaera	24
Grafikoa 23: Kaudimen globalaren bilakaera	24
Grafikoa 24: Zorpetze ratioaren bilakaera	25
Grafikoa 25: Sektoreko hiru enpresen aktiboaren tamaina.....	26
Grafikoa 26: Sektoreko hiru enpresen negozio zifra garbia	27
Grafikoa 27: Merkatuko salmenten proportzioaren eboluzioa	27
Grafikoa 28: Sektoreko hiru enpresen salmenta kostuen bilakaera	28
Grafikoa 29: Sektoreko hiru enpresen Merkataritza Marjina Garbia	28

Grafikoa 30: Sektoreko hiru enpresen Ebitda-ren bilakaera.....	29
Grafikoa 31: Sektoreko hiru enpresen errentagarritasun ekonomikoaren bilakaera.....	29
Grafikoa 32: Sektoreko hiru enpresen errentagarritasun finantzarioaren bilakaera	30
Grafikoa 33: Sektoreko hiru enpresen Errotazio fondoaren bilakaera	31
Grafikoa 34: Sektoreko hiru enpresen ordainketa eta kobru epeen tartea.....	32
Grafikoa 35: Sektoreko hiru enpresen likidezia globalaren bilakaera.....	32
Grafikoa 36: Sektoreko hiru enpresen altxortegiaren bilakaera.....	33
Grafikoa 37: Sektoreko hiru enpresen kaudimen globala.....	33
Grafikoa 38: Sektoreko hiru enpresen zorpetze ratioaren bilakaera.....	34

ILUSTRAZIOEN AURKIBIDEA

Ilustrazioa 1: Errotazio fondoaren egoera.....	18
--	----

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Vidrala enpresa taldeko entitateak	9
Taula 2: Bideango produktu eta produktu bukatuen distribuzioa	15
Taula 3: Errotazio fondoa osatzen duten partidak.....	18

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lana egiteko aukeratutako gaia, Vidrala S.A. enpresa bateratuaren kontuen analisi ekonomiko-finantzarioa egitea izan da eta era berean, herrialdeko sektoreko beste bi enpresekiko konparaketa garatzea.

Hasieratik argi neukan enpresaren kontu edo finantzekin zer ikusia zuen gradu amaierako lan bat garatu nahi nuela. Enpresa inguratzen duten sail askori buruz ikasten da unibertsitatean, baina enpresaren urteko jarduera osoak dakartzan ekarpenek izan ditzaketen esanahiak identifikatzea interesgarria iruditzen zitzaidan. Analisi hau egiterako orduan, urteko kontuak ondo ulertu eta enpresak izan duen bilakaeraren zergatiak ulertzea izan da helburua. Bestetik, azkeneko urteetan mundu osoa kolpatu duten egoera desberdinek ekonomian izan duen eraginaren azterketa garatu nahi nuen, enpresaren kontuetan utzitako aldaketak ikusiz.

Entitatearen aukeraketa egiterako orduan, Euskal Autonomia Erkidegoan hasiera izanda zuen enpresa bateri buruz egingo nuela argi neukan. Lehenengo pausua, "Comisión Nacional de Valores" web orrialde ofizialean igota dauden enpresen urteko kontuei begirada bat ematea izan da. Vidrala S.A. enpresaren kontuak aurkitutakoan, beiraren sektoreari buruz jakiteko grina sartu zait. Enpresak, jasangarritasunaren inguruan duen filosofiak, atentzioa deitu dit. Vidralak, Iberiar penintsulako beira ekoizle eta saltzaile handiena izatea lortu du jasangarritasuna ardatz nagusitzat duen filosofia mantenduta.

Bigarren pausua, enpresaren historia eta datu garrantzitsuak biltzea izan da, enpresaren egitura eta izaera hobeto ulertzeko asmoz. Ondoren, sektoreari buruzko informazioa bildu da, enpresaren jarduerari buruzko puntu garrantzitsu batzuk aipatzea egokia iruditu zaidalako.

Analisiaren hasiera emateko, CNMV-tik lortutako urteko kontuen azterketa egin da. 2019. urterik 2022. urterako denbora epearen analisia egitea erabaki da, azkeneko urteetan bizitako zirkunstantziak eragin duten bilakaera ikusi nahi izan delako. Horretarako, urteko kontuen irakurketa sakon batekin hasi da ikerketa, bertan aurkitutako puntu garrantzitsuenak azpimarratuz. Txostenean zeuden balantze eta galdu irabazien kontuak, Excel orri batean ezarri dira, orri hau ikerketa garatzeko tresna nagusia izan delarik. Jarraian, balantze eta galdu irabazien analisia egiteko informazioa bilatu da. Enpresa baten kontuen gaineko informazioa aztertzeke ratioak identifikatu dira, horiek exceleko informazioa aztertzeke erabiltzeke. Ratio hauetako asko ezagunak dira, graduako "Kontabilitate Analisia" irakasgaiak ikusiak izan direlako. Behin ratio hauen emaitza lortu ondoren, lortutako emaitzak identifikatu dira eta horiek izan zitzaketen esanahiak bilatu dira.

Analisi hau garatuta, sektoreko beste enpresa batzuekin konparatzea erabaki da. Horretarako, lehenik eta behin, Vidralaren kompetentzia zuzenak diren herrialdeko enpresak identifikatu dira eta datuak lortzeke "SABI" iturri erabili da. SABIn 2021. urterainoko datuak besterik ez daudenez, lanaren zati hau garatzeko 2022. urteko datuak ez dira erabili. Informazio guzti hau bilduta izanik, beraien arteko antzekotasun eta desberdintasunak identifikatu dira.

Hurrengo puntuan, sektore eta enpresaren etorkizunaz hitz egin da, interesgarria iruditu zaidalako sektore honek denboran zehar izan duen bilakaera norantz bideratzen zen jakitea.

Ikerketari amaiera emateko, lan osoan eginiko analisiaren afirmazio deigarrienak bildu dira.

2. BEIRAREN SEKTOREAREN ANALISIA

Beira, gaur egungo gizartearen eguneroko produktu asko fabrikatzeko erabiltzen den materiala da. Beiraren produkzioa mundu osoko merkatuetara zabaldu izana, beste sektore garrantzitsuenekin duen erlazioari esker izan da; eraikuntza, automozio, etxeko tresna edo aisialdira bideratutako zerbitzuen parte delarik (European Commission, d.g.).

Gizakiak duela 5000 urtetik K.a dauka beiraren erabileraren ezaguera. Arbasoek, gaur egun bezala, beiraren erabilera jarduera desberdinetarako tresna edo dekoratzeko helburuarekin erlazionatzen zuten. Beiraz eginiko lehenengo piezak K.a 2100. urtean kokatu daitezke, moldeatzeko lehenengo teknikak bertan sortuaz. Hasiera batean pertsona gutxi batzuk lor zitzaketen objektu preziatuak, gaur egungo industria erraldoi batean bihurtu da (Anfevi, d.g.).

Beiraren industriak, produktu eta erabilera komertzialen araberako klasifikazio desberdinak izan ditzake, baina kategoria printzipalak lau dira: Beira hutsa, laua den beira, beira zuntzak eta beira bereziak (Gobierno de España, d.g.).

Europar Batasuna mundu osoko beira-ekoizlerik handiena da, mundu osoko merkatu kuotaren herena bereganatzen duelarik. Europar Batasuneko beira sektorea ezaguna da produkzioan daukan berrikuntza teknologikoen ahalmenagatik ala nola kalitatezko produktuak fabrikatzeko gaitasunagatik. Alemania da Europar Batasuneko fabrikatzailerik handiena, produkzio guztiaren bostena fabrikatuz. Jarraian, Frantzia, Espainia eta Italia dira sektore honetan Europako fabrikatzailerik handienak (European Commission, d.g.). Hala ere, beira esportatzaile herrialde nagusien analisia eginez gero, 2021. urtean Txinak izandako domeinu absolutua aipatu behar da, munduko beira produktuen esportazioen %24,8-a bereganatuz (Statista, 2023).

2021eko datuen arabera, munduko beira produkzioa 106.440 milioi dolaretan balioetsita dago eta hurrengo urteetan, balio honen igoera espero da, batez ere Asiako kontinentean (Glass Manufacturing Market Size, Share & Trends Analysis Report By Product (Container, Flat, Fiber), By Application (Packaging, Construction), By Region, And Segment Forecasts, 2022 - 2030, s. f.)

Espainiako beira hutseko sektoreari dagokionez ere, hazkunde prozesuan dabilen sektorea da. Estatu mailan, ekoizpen balio maximoa 2018. urtean lortu zen Covid-19-ak utzitako pandemia baina lehen. Hurrengo urtea, produkzioaren jaitsiera nabarmena eman zen eta espero ez zen arren, 2021. urterako balio maximoaren ingurura itzultzea lortu zuen (Anfevi, 2022). Aipatzekoa da, beiraren fabrikaziorako erabili behar den energia kantitateak dituen kostuak, azken urteetako egoeren ondorioz igoera handiak jasan dituenak (Vidrala S.A., 2023)

Gaur egun, hiru dira Espainia mailan beira hutsaren negozioa kontrolatzen duten enpresak: Vidrala S.A. nagusia izango dena, Verallia Spain S.A. eta Ba Glass Spain S.A (eInforma, d.g.).

3. VIDRALA S.A. ENPRESAREN AURKEZPENA

Vidrala S.A., VIDRALA enpresa taldeko enpresa matrizea da eta beraz, enpresa-taldean aurkitzen diren gainontzeko enpresen buruan jardungo duen enpresa. Enpresa talde honen jarduera nagusia, beiraz osatutako ontzien fabrikazio eta salmenta da, hala nola, jarduera hau aurrera eramateko beharrezkoak diren logistika eta ontziratze produktuen zerbitzuak erraztea (Vidrala, 2023).

Iharduera Ekonomikoen Klasifikazio Nazionalaren arabera (IEKN), Gaztelaniaz “Clasificación Nacional de Actividades Económicas” (CNAE) moduan ezagunagoa dena, beira hutseko ontziak egitera zuzenduta dagoen jarduerara bideratzen du enpresa. 23. Taldean sartzen da, metalikoak ez diren mineralez osatutako produktuen fabrikazioan; 23.13 azpitaldean hain zuzen ere, beira hutseko produktuen fabrikazioan.

Gaur egun, mundu osora zabaldu den enpresa bat da eta egia den arren beren produktu eta zerbitzuak mundu osoan barrena eskuratzetik badaudela, jarduten duen merkatu nagusia Europako zenbait herrialde dira; Espainia, Portugal, Frantzia, Italia, Erresuma Batua eta Irlanda dira herrialde hauek hain zuzen ere (Vidrala, d.g.).

Produktu sortari dagokionez, enpresaren hedapena garatzen joan den heinean, produktu katalogoaren hazkundera ere gertatu da. Gaur egun eskaintzen dituzten produktuen artean sartzen dira olio eta ozpin ontziak, garagardo ontziak, kontserbentzako ontziak, edari apartsuentzako ontziak, likore eta ardo ontziak, zumoentzako ontziak eta bestelako produktu sorta batzuk (Vidrala, d.g.).

Enpresak bere jarduera guztian zehar duen ingurumenarekiko konpromisoa aipatzekoa da. Alde batetik, Vidrala taldeak, produkzio seguru, legal eta kalte gabeko ekoizpena bermatzen du bere produktu guztietan. Beste aldetik berriz, langileen osasuna eta segurtasunari ematen dioten garrantzia deigarria da; ingurumenaren ongizatearekin duten konpromisoarekin batera (Vidrala, d.g.). Hau ziurtatzen duten ziurtagirietako batzuk dira, web orri ofizialean ikus daitezkeen ISO 9001, ISO 14001, ISO 45001, ISO 50001 eta BRCGS paketatze materialen ziurtagiria (Vidrala, d.g.).

3.1. ENPRESAREN SORRERA ETA BILAKAERA

Vidrierias Alava, gaur egun Vidrala moduan ezagunagoa dena, Laudion (Araban) dauka sorrera 1965eko martxoaren 17an sozietate anonimo modura (Rodríguez, 2015). Enpresa honen jarduera nagusia, barrutik hutsak diren beirazko ontzien fabrikazioa izango da.

Sozietate anonimo honen sortzaile nagusitzat, Isidoro Delclaux Arostegui hartzen da; garaiko ekonomia egoeraren hazkundeaz baliatuta, enpresa sortzea erabakitzen duena (Vidrala, d.g.). Frantziar politikari eta enpresaburu honek, beirak ekoiztera eta banatzera dedikatzen zen familia batean jaioa zen (Sanchez, 2015).

Delclaux familiak, Vidrala enpresaren kapital sozial osoa ezarriko du entitatearen sorreran. Guztira 120 milioi pezetaz osatutako kapital sarrera bat ezartzen da eta horrela, Laudion kokapena izango duen lehenengo fabrika irekitzen da (Sanchez, 2015)

Enpresa sortzearen lehenengo pausua, 1964. urteko irailean ematen da, fabrikazio planta erosteko erabakia hartzen den unean eta ia urte bat beranduago, 1965eko abuztuan, lehenengo makinak beira hutsa produzitzen hasiko dira. Ezarritako kapitalak, makina gutxi batzuk erosteko besterik ez zuen eman eta horrela, Vidralaren proiektuari hasi ematen diote urtean 25.000 tona beira fabrikatzeko ahalmena izanik (Rodríguez, 2015).

Hasiera honetan, beste sektoreetako enpresekin izandako akordioak dira enpresaren etorkizuna onetsiko duten estrategia. Enpresaren eboluzioa bermatzeko, Errioxako eta Bordeleko ardo industria hartuko da ekoizpeneko ardatz nagusitzat. Produktu hauek (ardo botilak), beirazko ontzietan osatuta daude eta beraientzat hornitzaile modura arituz, beren merkatu kokapena aurkitzen dute. Horrela industrial gune honetako hornitzaile eta bezeroen ingurutik azkar zabaltzea lortuko du enpresak (Sanchez, 2015).

Zabalkuntza estrategia hau oso baliagarria izango den harren, enpresaren biziraupeneko lehenengo hiru urteetako emaitzak negatiboak izango dira, galerak izanik. Situazio hau bizitzearren arrazoi nagusia, sortu berria den enpresa honek nazioartean kokatuta dauden sektoreko enpresa erraldoiekin duen lehiakortasuna izango da. Saint Gobain, Bousssois-Souchon-Neuvesel enpresa Frantziarrek eta Owens Illinois enpresa Estatu Batuarrek, mendearen hasieratik zebiltzan merkatuko nagusiak izaten eta eskuragarri dauzkaten teknologia aurrerakuntzei aurre egitea oso zaila da Vidralarentzat (Sanchez, 2015).

1968. Urtea izango da kontsumoko eta industrial merkatuen hazkundearen laguntzaz, enpresak irabaziak izango dituen lehenengo urtea, baina oparo aldi honek gutxi iraungo du oraingoan (Sanchez, 2015).

Kristinak dioten moduan, 1973. urtean egondako petrolioaren krisiak, gogor joko du beiraren merkatua (Jalle, 2018). Petrolioaren prezio igoerak, ez husteko atzerapen handiak eragin ditu garatzen ari zen merkatu honetan, baina enpresak arazoei aurre egitea lortzen du.

Hori de la eta, 1977. urtean, Vidralak, bere produkzio segmentua prentsaturako beirara irekitzea erabakitzen du eta horrela, garaiko egoera zailenetan, merkatuan indartsu mantentzea lortzen du (Jalle, 2018).

Etorkizun oparo batean pentsatzen, produktibitatean aldaketa nabarmena emango du enpresak, labe eta makina berriak ezarriz eta aldaketa hauek urteko produkzioan isladatzen hasiko dira, urte horretan 130.000 tona produzitzera iritsiko delarik. Barne aldaketa hauetako bat izango da beira produzitzeko erabilitako prozesu mota; “soplado-soplado” estilotik “prensado-soplado” estilora pasaz (Jalle, 2018).

Vidralarentzat garai zailak diren arren, ez du inolako likidezia arazorik sufritzen zailtasun hauen aurrean. Urte guzti hauetan zehar, proiektua bermatzen duten inbertsionistak izango baititu eta. Gainera, 1985. urtean Espainiako eta Bilboko burtsan kotizatzen hasiko da. Egoera hau, aukera ezin hobe izango da enpresaren hazkundearentzat eta garai hartako banku inportanteenetako batzuk (Banco de Bilbao eta Banco de Vizcaya), enpresaren kapital sozialean parte hartzen hasiko dira (Sanchez, 2015).

80. hamarkadaren amaieran, Vidralaren lehenengo hazkunde sintomak ikusten hasten dira. Garai hartako Gaztelako probintziaren egoera, ez zen oso ona eta reindustrializatu beharra zegoen Albaceteko zonalde bat aprobetxatuz, Crisnova izeneko produkzio planta berria irekitzea erabakitzen dute bertan (Sanchez, 2015).

Aurretik egindako lan guztiaren fruituak somatzen hasita, Vidrala enpresa taldeak (Vidrala eta Crisnovaz osatuta), Espainiako merkatuaren %20ko merkatu kuota bereganatzea lortzen du (Sanchez, 2015). Denbora gutxian urteko produkzioa 225.000 tonatara iristea lortuko da eta Crisnova fabrikak izandako hasiera ikusita, bigarren labe bat ezartzea erabakitzen dute bertan. Honen emaitza izango da, mende amaierarako (1998. urtea) 450.000 tonako produkzioa izatea lortzea (Vidrala, d.g.).

Eboluzio guzti honen laguntzaz eta efizienteagoak izango diren makineria erabiliz, internazionalizazioan tokitxo bat hartzea lortzen du. Faktore hauen laguntzaz, produkzio kostuetan jaitziera bat gertatuko da eta merkatu internazionallean lehiakorragoak izatea bermatuko du honek (Sanchez, 2015).

XXI. mendearen hasieran internazionalizazio prozesu honen barnean emango den lehenengo urratsa (2003. urtea), Vidro de Embalagem enpresa Portugesaren eskuraketa izango da, enpresa taldearen urteko produkzioa 610.000 tonatara haztea eragingo duena (Vidrala, d.g.).

Bi urteren ondoren, taldeak izandako eboluzio itzela ikusita, O-I enpresari BSN Glasspack (Vallesen, Espainia) eta Avir (Corsicon, Italia) produkzio instalazioak erosiko dizkio eta horrela Valvitrum S.A. eta Corsico Vetro S.r.l sozietateen sorrera emango da (Vidrala, d.g.).

Enpresa taldearen tamainaren hazkundearen ondorioz, 2006. urtean, Vidrala, taldearen matrizeztat ezartzea erabakitzen da, korporazio berri baten irudia lortuz (Vidrala, d.g.).

2007. urtean beira produzitzera bideratuta zegoen Manufacture du Verre S.A. enpresa bereganatzen du espantsio prozesu honekin jarraitu nahian. Hala ere, 2019. urtean enpresa honen salmenta gertatuko da, taldeak bertan zuen produkzio guztiarekin amaituz (Vidrala, d.g.).

Emandako azkeneko urratsetakoak izango dira 2015. urtean eskuratutako Encric Limited sozietatea eta 2017. urtean eskuratutako Santos Barbosa sozietatea. Lehenengo aipatutako sozietatearen eskuratzean ondorioz Vidrala taldeak, Europako 4. eragilearen postua lortuko du eta bigarrenaren eskuratzearekin berriz Iberiar penintsulako merkatuko liderra izatea lortuko du (Vidrala, d.g.).

60 urte baina gutxiagoko prozesu honen bidez, Arabako herri txiki batean, inguruan zituen enpresei ontziak produzitzera bideratzen zen enpresa txiki bat, Europa mailako merkatuko potentzia handienetako batean bilakatu da.

3.2. INFORMAZIOA ETA TAMAINA

Enpresaren aurkezpenean esan bezala, CNAE jardueraren klasifikazioaren arabera 23.13 azpitaldean sartuta dago; beira hutseko produktuak fabrikatzera bideratuta. Hala ere, bertan aurkezten dena baino egiteko gehiago dauzka jarduerak. Vidralaren egitekoa, hornitzaileei lehengaiak erosterakoan hasten da eta beren bezeroei saltzen dizkieten produktu bukatuekin amaitzen da. Beraz, prozesu luze honetan, fabrikazio eta komertzializaziora bideratzen diren azpitaldez osatutako enpresa handi bat da.

Araban jatorria duen enpresa talde honen egitura, hamabi azpi enpresaz osatuta dago eta Vidrala S.A. matrizeak, guztietan 100% partizipazioa dauka (Vidrala S.A., 2023). Jarduera desberdinetara bideratzen diren enpresa hauen distribuzioaren bitartez, produkzioaren hasieratik, salmenta unera arteko prozesua egitea lortzen dute (1. taula).


Taula 1: Vidrala enpresa taldeko entitateak

Crisnova Vidrio, S.A.	Beirazko ontzien produkzio eta salmenta
Inverbeira, Sociedad de Promoción de Empresas, S.A.	Enpresen sustapena
Aiala Vidrio, S.A.U.	Beirazko ontzien produkzio eta salmenta
Gallo Vidrio, S.A.	Beirazko ontzien produkzio eta salmenta
Vidrala Logistics, Ltda.	Logistika zerbitzuak
Castellar Vidrio, S.A.	Beirazko ontzien produkzio eta salmenta
Vidrala Italia, S.r.l.	Beirazko ontzien produkzio eta salmenta
Vidrala France, SARL	Beirazko ontzien komertzializazioa
Vidrala Desarrollos, S.L.U.	Enpresen sustapena
Encirc Limited	Beirazko ontzien produkzio eta salmenta
Encirc Distribution Limited	Logistika zerbitzuak
Santos Barosa Vidros, S.A	Beirazko ontzien produkzio eta salmenta

Iturria: Vidralaren urteko kontuak 2022

Enpresa taldearen langile kopuruari dagokionez, enpresa handien taldearen barnean sartzeko langile nahikoa izango lituzke; Hala ere, enpresa indibidual horietako bakoitza ez da talde honen barnean sartzeko gai. Ikus daitekeen modura, enpresa taldeko langile kopuru maximoa, lehenengo urtekoa izan da. Hurrengo urtean, zenbateko honen jaitsiera handia ikus daiteke eta 2021. urtean ere, jasandako jaitsieraren zenbatekoaren egonkortzea egon da. Urteko kontuek aipatzen duten moduan, jaitsiera hau gertatzeren arrazoia, Belgikan kokatzen zen Investverre S.A. enpresaren salmentaren ondorioa da (Vidrala S.A., 2021). Azkeneko urtean gertatutako langile kopuruaren inguruan ez da ezer komentatzen urteko kontuetan, beraz, jarduera printzipalaren hazkundearen ondorioz izan dela ondorioztatu da (1. Grafikoa).

Grafikoa 1: Langile kopuruaren eboluzioa




Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Urteko kontuetan dioten moduan, enpresaren jarduerak elikadura eta edarientzako beirazko ontzietan dauka ardatza (Vidrala S.A., 2023). Segmentu honen barnean, zerbitzu-sorta zabala eskaintzen dute, modelo eta estilo desberdinez osatuta dagoena. Gaur egun, enpresa handietako produktuak hornitzeko ekoizpenean jarduten du enpresak; marka ezagunen produktuak biltegitratzen batik bat. Horrela, urtean 8.000 milioi botila eta ontzi ekoizten dituzte 1.600 bezero baina gehiagorentzat.

Azpiko grafikoan (2. Grafikoa), enpresaren urte batetik besterako eboluzioa ikus daiteke. Salmentek izan duten aldaketa erreala, %23,9ko igoera izan da 2021. Urtetik 2022. Urtera. Hau azaltzearen arrazoia, enpresa taldeak herrialde desberdinetan dituen enpresen ondorioa da. Britainia Handian eskuratutako Encirc Limited enpresak erabilitako dibisa, ez da euroa eta azpiko grafikoaren bidez, salmenten hazkunde erreala eta dibisaren ondoriozko aldaketa behatu daitezke.

Grafikoa 2: Salmenten bilakaera



Iturria: Vidralaren urteko kontuak 2023

4. ENPRESAREN EGITURA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Puntu honetan, enpresaren azkeneko lau urteetako datu ekonomiko-finantzarioak aztertzen dira. Helburua, enpresaren lau urte hauetako ñabardurak aztertu eta horiek gertatzearen arrazoiak ulertzea izango da. Análisi hau egiteko, enpresaren memoriatik ateratako urteko kontuak erabiltzea izango litzake ohikoena. Kasu honetan, "Comisión Nacional del Mercado de Valores"-etik (CNMV) eskuratutako Vidralaren urteko kontuak erabiliko dira informazio iturri nagusi moduan, "SABI"-ko datuekin kontrastatu ostean. Izan ere, CNMV-tik eskuratutako Vidralaren datuak begiratu ondoren, enpresa taldearen urteko kontuen sailkapen oso globala egiten dela ikus daiteke, datu hauen análisisia dezente zailtzen duelarik. Zenbateko asko, "Beste pasibo edo aktibo"-en partidan sartzen dituzte adibidez eta memoriako puntu eta SABI-ko informazioak batuz, zenbateko hauen sailkapen zehatzagoa egitea izan da helburua. Horrela, hurrengo puntuetan ikus daiteken análisisia egitea lortu da.

4.1. ENPRESAREN EGITURA


Enpresaren egituraren barnean, enpresaren urtearen hasieratik, enpresaren urtearen amaieraraino gertatutako aldaketa guztiak isladatzen dira. Beraz, datu hauen azterketa, garrantzitsua izango da enpresaren noranzko orokorra ikusteko.

4.1.1. Balantzea

Balantzean, enpresa osatzen duten faktore guztien egitura adierazten da, kasu honetan, Vidrala enpresa taldearen egitura. Puntu honetan, egitura hau osatzen duten zenbaki deigarrienen análisisia egitea izango da helburua eta zenbaki hauek jasan ditzaketan anomalien zergatia aurkitzea.

Aktibo osoari dagokionez, joera orokor bat ikus daiteke azken bolada honetako kontuetan. 2019. urtetik 2022. urterako eboluzioan, aktibo ez korronteak, balantzean duen partizipazioan jaitziera konstantea egon dela ikus daiteke. Aktibo ez korronte eta aktibo korrontearen hazkundera gertatu den arren, aktibo korrontearen hazkundera handiagoa izan da eta beraz, gertaera hau da enpresaren balantzearen egitura aldaketa gertatzearen arrazoia (3. Grafikoa).

Grafikoa 3: Aktiboaren distribuzioaren eboluzioa



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak


Aktibo osoari begirada bat emanez gero gauza bat egiaztatu daitezke. Ibilgetu materialeko inbertsioek (aktibo ez korronteko zati handi bat osatzen dutenak), enpresa talde baten matrizeztat jarduten duela egiaztatzen du. Izan ere, enpresa taldeko enpresa arrunt bat bezala jardungo balu, beste taldeko enpresetan egindako inbertsioen partidaren zenbateko positiboa ikusi beharko litzateke.

Aktibo ez korronteko partidetan deigarriena den datuetako bat, ibilgetu materialak duen tamaina handia izango da. Enpresa taldeko datuen azterketa egitearen ondorioetako bat izango da hau, enpresa taldeko filial guztiek dauzkaten instalazio eta egitura guztiak barneratzen direlako bertan. Beste alde batetik, balantzearen egitura oso eragin txikia duen partida den arren, Inbertsio finantzarioen "Swap" partidaren eboluzioa aipatu beharra dago. Interes-tasa, inflazio, truke-tasa eta energia-prezioari buruzko finantza-trukeak eta aukerak erabiltzen ditu enpresa taldeak, aldagai horien fluktuazioekiko esposizioak kudeatzeko. Lehen esan bezala, zenbateko honen balantzeko pisua oso txikia den arren, lau urteetan izan duen %32.869,09-ko hazkundera deigarria da. Honek gauza bat argi uzten du: Enpresa taldea, prezioetan gertatu daitezken aldaketen defentsarako estrategia bat finkatzen ari dela, horiek jasan ditzaketen igoerak ekiditeko.

Aktibo ez korrontea alde batera utzita, aktibo korronteko partidei begirada bat emateko momentua da. AK-ko partidarik garrantzitsuenak, izakin eta bezeroen zenbatekoenak dira AK-ko %90-a osatzen dutenak 2019. urtean. Zenbateko hauen eboluzioa positiboa izan da lehenengo urtetik azkeneko urtera; galdu irabazien kontuetako salmenten igoerarekin batera, jardueraren igoera bat egon dela adierazten dutenak.

Hala ere, benetan aktiboaren igoeran eragina izan duen faktorea, diruzaintzaren aldaketa handia izan da (4. Grafikoa). Lehenengo bi urteetan izandako hazkunde erraldoia (%557,53-koa), ustiapen jarduerako diru-fluxuaren eragin positiboagatik izan da. Partida honen aldaketa, ondorengo puntuetan azaltzen da; Diru-Fluxuaren Egoera Orrian hain zuzen ere. Hala ere, diruzaintzaren azpitaldean egondako igoerak eta diru fluxu positibo hori mantentzeak, zuzeneko erlazioa dauka urte hauetan bizitako egoerarekin. Inflazio garaian, ondasunen eta zerbitzuen prezio igoerei aurre egiteko, beharrezkoa izan da enpresaren likidezia handia eta egonkorra izatea (Fernández, 2022). Beraz, ondo azaltzen da Covid-19 edo Ukraina eta Errusiaren arteko gerrate garaian bizitako giro eta egoera.

Grafikoa 4: Diruzaintzaren hazkundera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak


Enpresaren pasiboari dagokionez, egitura egonkorra mantendu du urte guzti hauetan zehar, egoera orokorra pasibo totalaren igoera izan delarik. Fondo propioa ikusiz gero, eboluzio positiboa izan du zenbaki indizea aztertuta. Pasibo totalaren ehunekoaren barnean, gora beherak izan ditu: 2019. urtetik, 2021. urtera finantzaketa propioak gorakada bat jasan zuen, hurrengo urtean berriz barne finantzaketa honek beherakada jasan zuelarik. Joera ulergarria da honako hau; barne finantzazioaren igoera, bizitako pandemia eta gerraren ondorio zuzena izanik. Izan ere, gizartea ez egonkortasun garaian dagoenean, enpresek hartzen duten autofinantzaketa gaitasunak gora egiten du; horrela egon daitezkeen interes eta prezioen aurka babestu egiten dira (inflazioa, Euriborra...).

Kanpo finantzaketak izan duen egitura ere egonkor mantendu da urteetan zehar, gertatutako bariazioak txikiak izanez. Arreta deitzen duen gauzetako bat, epe laburreko pasiboaren azpitaldeen eboluzioa izan da, epe laburreko zorrak %60-27 jaitsi direlarik urte hauetan zehar, eta hartzekodun komertzialenak gora egin duelarik %72.97-ean. Beraz, bankuek emandako epe laburreko maileguen kantitatea murriztea gertatu da, urte horretako finantzaketa hartzekodun komertzialen kontuen bitartez lortuz. Hau gertatzearen arrazoia ez da argi eta garbi azaltzen, baina hipotesietako bat, epe laburreko bankuen kostu eta arriskuak ekiditeko finantzaketa sistema bat ezarri izana izan daiteke.

4.1.2. Galdu Irabazien kontuak

Galdu irabazien datuen azterketa bat eginez gero, lau urteetan zehar egondako ekitaldiko emaitza egonkor mantendu dela ikus daiteke. Merkataritza Marjina Garbiaren eboluzioa, negatiboa izan da urte batetik bestera, 2022. urtean, 2019. urtean lortutakoaren %85,45-a lortuaz. Hala ere, ustiapeneko emaitzak eta emaitza finantzarioak jasandako hazkundera ekitaldiko emaitza egonkorra izatea bermatu dute. Azkeneko urtean ustiapeneko emaitzaren zenbatekoa horren altua izatearen arrazoia "beste sarrerek" jasan duten hazkundera izan da. Totalean, %305.44 hazi da denbora tarte guzti honetan zehar, Merkataritza Marjina Garbiaren jaitsierari aurre egitea lortu duelarik. 2022. urtea izan da, denbora tarte honetan emaitza finantzario positiboa izan duen lehenengo urtea, 2019. urtearekin konparatuz, % 69,45-eko eboluzio positiboa izan duena. Bi datu hauen laguntzaz, MMG-ak izan duen jaitsiera nabarmenari aurre egitea lortu da, ekitaldiko emaitza aurreko urtekoen antzekoa izatea bermatuz (5. Grafikoa).

Grafikoa 5: Galdu irabazien azpitaldeen eboluzioa



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

4.2. ENPRESAREN POLITIKAK


Enpresaren politiken barnean, politika deigarrienen azterketa egitea erabaki da; azken finean, ñabarduren analisi bat egitea da helburua eta ez datu guztien errebaso bat egitea.

4.2.1. Merkataritza politika

Merkataritza politikak, denbora tarte itxi batean enpresak izandako salmenten eta salmenten gaineko kostuan arteko zenbatekoa isladatzen du, Merkataritza Marjina Gordina (MMG) izena duena (4.2.1. Grafikoa).

Galdu irabazien azterketan esan bezala, marjina honek eboluzio negatiboa izan du hartutako denbora tarte honetan. Salmenten zenbatekoak 2019. urtetik, 2022. urtera gora egiten duen arren (%33,2-ko hazkundea izanez), merkataritzaren marjina garbiaren jaitsiera ikus daiteke; lehenengo urtean lortutakoaren %85,45-ko zenbatekoa lortuz (6. Grafikoa). Hau gertatzearen arrazoia, lau urte hauetan zehar salmenten kostuek izandako igoeragatik izan da; salmenten kostuen zenbatekoa lehenengo urtekoa baina bi aldiz handiago izan delarik 2022. urtean. Vidralaren urteko kontuen bostgarren puntuan adierazten den bezala, produkzio kostuen igoera handia gertatu da azkeneko urteetan. Horietako arrazoiak bat, Ukraina eta Errusiaren artean bizirauten duen gerratea da, energiaren prezioan igoera eragin duena (Vidrala S.A. , 2023).

Grafikoa 6: Merkataritza marjina gordina




Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

4.2.2. Pertsonal politika

Puntu hau aztertzea garrantzitsua da, enpresaren produktibitatea aztertzen baita langile kopuru eta pertsonaleko gastuekiko. Grafikoan ikus daitekeen moduan enpresaren produktibitatearen malda positiboa da. Azkeneko urteetan, salmentak, pertsonal gastuekiko edo langile kopuruekiko konparatuz gero, produktibitatearen hazkundera egon dela esan daiteke (7. Grafikoa). Bilakaera hau, salmentek izandako hazkunderagatik izan da bultzatua baina bertan eragin duten beste faktore batzuk ere badaude. Pertsonal gastuekiko konparaketan, argi ikus daiteke, pertsonal gastuen zenbatekoa eta salmenten zenbatekoaren arteko tarteaz hazten joan dela. Beraz, pertsonal gastuen hazkundera salmenten igoera baina txikiagoa izan dela ondorioztatu daiteke, produktibitatearen gorakada bat eraginda. Langile kopuruarekiko produktibitatearen emaitza ere berdina da; enpresa produktibitatearen hazkunde fase batean aurkitzen dela ikus daiteke. Bestetik, produkzioa langile kopurua baino gehiago hazteak, langile bakoitzak lorturiko produktibitate gaitasuna egiaztatzen du; lan gehiago ateratzeko duten ahalmena bermatuz (7. Grafikoa).

Grafikoa 7: Produkzioaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

4.3. BATAZ BESTEKO HELTZE AROA

Bataz besteko heltze aroa edo BBHA, enpresak lehengaiak erosten dituenetik, eskaintzen dituen produktuak saldu eta beren bezeroengandik prozesu honetan inbertitu duen dirua kobratzen duen unera arteko denbora tarteaz da; enpresaren aktibitate printzipalarekin zuzeneko erlazioa izango duena. Enpresaren jardueraren baitan, BBHA kalkulatzeko bi metodo existitzen dira jarduera bakoitzaren arabera hobeto egokitzen direnak.

Vidralaren kasuan, enpresa taldearen datuak direnez, fabrikaziora zuzenduta dagoen BBHA sistema erabili behar da. Kasu honetan, jarduera desberdinak egitera bideratuta dituen azpi enpresak ditu Vidrala taldeak eta honek, lehengaien erosketatik, salmentak garatzerako prozesu guztia biltzen du. Azpiko taulan ikus bezala (8. Grafikoa), sistema hau lau epetan banatzen den prozesu batean datza eta epe horietako bakoitzean, aktibitateko jarduera printzipala egiteko pausu bakoitzerako erabilitako denbora tarteaz kalkulatu da egunetan.


Grafikoa 8: Aktibitate printzipaleko epe tarteak

	HORNIKUNTZA EPEA EGUNETAN (d1):	PRODUKZIO EPEA EGUNETAN (d2):	BILTEGIRATZE SALMENTA EPEA (d3):	KOBRO EPEA (d4):	ORDAINKETA EPEA (d5):	ORDAINKETA-KOBRUAU:
2019	81	0	56	76	210	134
2020	75	0	46	72	220	148
2021	51	0	43	74	167	93
2022	39	0	56	82	187	106

Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Lehenengo denbora tarte, Hornikuntza epearena (d1) da. Azpiko grafikoan ikus daitekeen moduan, bilakaera ezin hobea izan du Vidralaren 2022. urteko hornikuntza epea hasierako urtekoaren erdia izanez (9. Grafikoa). Epe honek, enpresak hornikuntzan egindako inbertsioa isladatzen du. Hornikuntza epearen tarte handitzeak, biltegitratze kostuak ekarriko dizkio enpresari. Lehengaien kontsumoan gertatu den hazkunde handia izan daiteke epearen denboraren jaitsieran eragina izan duen faktoreetako bat.

Grafikoa 9: Hornikuntza epea egunetan



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Bigarrena, produkzio epea deritzoguna (d2), kalkulatu ezin daitekeen denbora epea da enpresa honen kasuan. Denbora tarte honen zenbatekoa kalkulatzeko, bideango produktuen zenbatekoa beharrezkoa den datua da eta Vidralaren urteko kontuei dagokionez, datu hau ez da agertzen. Bideango produktu eta produktu bukatuen arteko banaketarik ez da egiten galdu irabazien kontuan eta ikusita urteko kontuen hamargarren notan, narriadura galerak, bakarrik bukatutako produktuei atxikitzen zaizkiela, galdu irabazien bideango produktu eta produktu bukatuen kontuko %100 bukatutako produktuei egotzi zaizkie (2. Taula). Enpresa taldearen datuak hartzerako orduan, ez da inolako banaketaren daturik ematen, guztiak matrizearen barnean baitoaz.


Taula 2: Bideango produktu eta produktu bukatuen distribuzioa

URTEAK	2019	2020	2021	2022
3. Ekoizpen-bidean diren produktuak	0	0	0	0
4. Produktu bukatuak	117126	95240	99501	171881

Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Hurrengoa, Biltegitratze-salmenta epea da (d3) eta bere izenak dioen moduan produktua produzitzen bukatzen den unetik (biltegitratu egiten denean), salmenta gertatzen den unera arteko denbora tarte da. Hemen ikusten dena da, biltegitratze epearen jaitsiera bat egon dela 2021. urteko amaierara arte, baina azken urtean biltegitratze epearen denborak gorakada izugarria eman du. Produkzio kostu eta bukatutako produktuek bilakaera antzekoa izan dute 2021. urteko amaierara arte, baina 2022. urtean, produktu bukatuen zenbatekoa ikaragarri hazi da. 2022. urteko produkzioak ikaragarri egin du gora eta biltegitratze epea luzatze honek, kostu handiagoak ekarriko dizkio enpresari. Salmenten gorakada handia ere egon den arren, seguruenik, espero zituzten salmenta baino gutxiago izan dituzte produktu bukatuen zenbatekoa handituz (10. Grafikoa).


Grafikoa 10: Biltegitratze salmenta epea



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Kobru epearen kalkulua (d4), bezeroak zati salmenta garbiak eginda lortzen da. Kobru epearen joera, biltegitratzekoaren oso antzekoa izan da. Lehenengo urteko bilakaerak, jaitsiera batekin erreflexatzen dira, baina 2022. urtean 2019. urteko zenbatekoa gainditzen du (11. Grafikoa). Epe tarte honek, enpresak bezeroetan duen inbertsioa adierazten du eta bilakaerak erakusten duen moduan, pandemia garaiko tartean bezeroetan eginiko inbertsioak behera egin zuen, esku diruaren alderantzizkoa gertatuz. Azkeneko urtean, kobru epearen igoera nabarmena gertatzen da, baina zergatik? Igoera hau, enpresaren salmenten igoerei esker, bezeroetan eginiko inbertsioek izandako hazkundeagatik izan da, kobru epearen igoeran isladatzen dena.


Grafikoa 11: Kobru epea



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Guzti hauen batura, Bataz Besteko Heltze Aroaren zenbatekoa izango da (12. Grafikoa). Bataz Besteko Heltze Aroa geroz eta laburragoa izan, enpresak eginiko inbertsioa lehenago berreskuratuko du beraz, enpresak eman duen azken urteetako aldaketa positibotzat har daiteke, diruzaintza handitzeko ahalmena bermatuz.


Grafikoa 12: Bataz besteko heltze aroa



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Bukatzeko, Vidralaren Ustiapeneko Errotazio Fondoaren Beharraren zenbatekoa kalkulatu da. Horretako, inbertsioa berreskuratzera lortzen den epe guztiari (BBHA), enpresak bere ordaintan egindako inbertsioen epea kentzen zaio. Kasu honetan, grafikoan ikus daitezken zenbateko negatiboek, enpresak duen inbertsioa ordaintak egin baino lehen errekuiperatuko dituela adierazten du, enpresaren likidezia eskuratzeko ahalmena bermatuz (13. Grafikoa) .

Grafikoa 13: Ustiapeneko errotazio fondoaren beharra



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

4.4. ERROTazio FONDOA

Errotazio fondoak, pasibo ez-korronte edo fondo propioaren bitartez, aktibo korronteko zein zati finantzatu den adierazten du. Zenbateko honen zeinua positiboa izanez gero, enpresaren aktibo korronteko inbertsioen zati bat, epe luzeko finantzaketa metodoen bidez finantzatu dira eta negatiboa izanez gero berriz, enpresaren aktibo korronte guztiak, pasibo korrontearen bidez finantzatu direla esan nahi du.

Taulan ikus daitezkeen modura, Vidrala enpresa taldearen errotazio fondoaren zeinua positiboa da lau urteetan zehar (2. Ilustrazioa). Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, errotazio fondoaren hazkundera eman da eta beraz, aktiboko epe laburreko inbertsioen segurtasuna bermatu nahi izan dela esan daiteke, inbertsio hauek, horietako zati bat epe luzeko finantzaketa tresnen bidez finantzatu direlarik.

Ilustrazioa 1: Errotazio fondoaren egoera

AKTIBO EZ KORRONTEA		ONDARE GARBIA ETA PASIBO EZ KORRONTEA
	EF	
AKTIBO KORRONTEA		PASIBO KORRONTEA

Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Taula 3: Errotazio fondoa osatzen duten partidak

VIDRALA S.A. (milaka eurotan)	2019	2020	2021	2022
Izakinak	194.617	161.514	166.491	254.683
Bezeroak	259.770	239.118	271.326	370.876
Zirkulatzaile. Finantz. Behar Gordinak	454.387	400.632	437.817	625.559
Hornitzaileak	235.669	228.942	265.737	407.635
Ustiap. E.F. Beharrak	218.718	171.690	172.080	217.924
(+) Beste Aktibo korranteak	5.646	1.378	24.010	1.114
(-) Beste pasibo korranteak	167.560	195.054	133.223	80.927
E.F.aren Beharrak	56.804	-21.986	62.867	138.111
Diruzaintza	28.795	112.178	160.540	154.029
Errotazio Fondoa	85.599	90.192	223.407	292.140

Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Izakin eta bezeroek jasan duten bilakaera berdina izan da. Urtez urte, enpresaren salmentek izandako bide berdina jarraitu dute, beren arteko zuzeneko erlazio bat egonez. Salmentak jaitsi diren urteetan, izakin eta bezeroen kontuek ere jaitsiera bat jasan dute eta igoera gertatu denean berriz igoera. Bi partida hauen batuketak, Zirkulatzaileko Finantzazio Behar Gordina osatzen dute (3. Taula).

Aurreko puntuetan bezala, Hornitzaileen partidaren bilakaera antzekoa izan da. Orain arte aztertu diren partida guztiak, ustiapen prozesuarekin zer ikusia dutenez, salmenten bilakaera berdina jasan dute. Salmenten jaitsiera gertatu den urtean, erosketek ere behera egin dute eta azkeneko urteetako salmenten igoerarekin batera, lehengaien erosketaren gorakada gertatu da, gora behera hauek bezeroen partidaren zuzenean erreflexatu direlarik (3. Taula).

Ustiapeneko Errotazio Fondoaren Beharrak adierazten duen bezala, enpresak izakin eta bezeroetan egindako inbertsioa ez da hornitzaileen finantzaketarekin bakarrik finantzatzea lortzen eta beraz, aktibo hauek finantzatzeko beste finantzaketa bide desberdin batzuk erabili beharra eragiten du (3. Taula).

Deigarria den beste datu bat, diruzaintzaren bilakaera erraldoia izan da. Taulan ikus daitezkeen moduan, partida honen zenbatekoaren aldaketa handia gertatu da azkeneko urteetan. Baina, zergatik izan du diruzaintzaren zenbatekoak horrenbesteko hazkundea?


Diruzaintzaren kontuaren zenbatekoaren igoera, likidezia lortzeko modu bat da. Likideziaz, balantzeko edozein baliabide bezala, alde ona eta alde txarrak dauzka. Likideziaz asko edukitzearen alde positiboa, ezegonkortasun momentuetan egon daitezkeen arazoei aurre egiteko ahalmena handiagotzea izango da (2019-2021. urteetan pandemia garaia, 2022. urtean Ukraina eta Errusiaren arteko gerra). Bestetik, beharrezkoa dena baino likideziaz altuagoa izateak, aukera kostuak sortzen dizkio enpresari (inbertitu gabeko dirua baita). Denbora tarte honetan, enpresak diruzaintzaren duen kantitatea mantendu du guzti horren zati bat inbertitu beharrean. Momentuko egoerei aurre egiteko estrategia bat dela dirudi, lehenago esan ditugun situazioek sor ditzaketen arazoak ekiditeko.

4.5. DIRU FLUXUAREN EGOERA ORRIA

Jarraian aztertzeko puntua Diru Fluxuen Egoera Orria da. Analisi hau gauzatzeko, enpresaren jardura desberdinetan egondako diru sarrera eta irteerak aztertu dira aktibitate bakoitzak xurgatzen duen diruzaintza hobeto aztertzeko.

Ustiapen Jardueraren Diru-Fluxuak (UDF), Vidralaren jardura nagusiak, kontsumitzen duena baino diru-fluxu gehiago lortzen duela adierazten du. Ustiapena da enpresaren likidezia iturri nagusia eta kasu honetan, lau urteetako ustiapen diru sarrerak, ustiapenean egondako diru irteerak baino dezente handiagoak dira. 2019. urtetik 2021. urtera, ustiapen jarduerako diru fluxuaren bilakaera positiboa gertatu da, baina 2022. urtean berriz, aurreko urteko likideziaren erdia ere ez da lortu, hau aztertzekoa den anomalia bat izanez (14. Grafikoa).

Grafikoa 14: Ustiapen jarduerako diru-fluxuaren bilakaera




Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Vidralaren UDF-aren emaitzan gertatutako inboluzio hau oso deigarria da. UDF-a osatzen duten partidak aztertuz, bi aldaketa nagusi aipatu daitezke azkeneko urteko ataletan: Lehenengo aldaketa nabarmena, Emaitzari doikuntzan (bigarren puntua) dago, non aurreko urteko emaitza doikuntzaren kontuko zenbatekoaren erdia lortu den. Aurreko urtekoarekin konparatuz gero, horniduren aldaketan emandako bariazioa izan da balantza hau desegonkortu duena. Bigarren aldaketa Kapital korrontearen aldaketa (hirugarren puntuan) izandako emaitza negatiboa da. Alde batetik, izakin eta zordunen partidak hazi egin dira, diru-fluxuaren zenbatekoan eragin negatiboa izan dutelarik. Gainera, beste aktibo eta pasiboan kontuan, pasiboak izandako gorakadak ere zuzenean eragin du diru-fluxuaren beherakadan. Beste alde batetik, hartzekodunekin izandako zorren gorakada gertatu da, enpresaren diru-fluxuan eragin positiboa izan duena, Hala ere ez da nahikoa izan beste beherapenei aurre egiteko (14. Grafikoa).

Bigarren zatia, Inbertsio Jardueren Diru-Fluxua (IDF) da. Puntu honetan, inbertsioen ordainketak egonkor mantendu dira lau urteetan zehar, ibilgetu materialean eginiko inbertsio ordainketak ia %100-a osatzen dutelarik. Ordainketa hauek, Vidralaren urteko kontuetan dioen "Portugal eta Erresuma Batuko instalazioen modernizaziorako" inbertsio planaren zati dira. Kobrantzen zenbatekoa zero izatea eta ordaindutako inbertsioen zenbatekoa egonkor mantentzea dira Inbertsio Jardueraren diru-fluxua negatiboa izatea eragin dutenak (15. Grafikoa).


Grafikoa 15: Inbertsio jarduerako diru-fluxuaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Hurrengo, Finantza Jardueren Diru-Fluxuak (FDF) dira. Eraitza negatiboa izan den arren, jaitsiera nabarmena jasan du Vidralak diru-fluxu negatibo egoera honetan (16. Grafikoa). Hau gertatzearen arrazoiak, bizi irausten duten banku finantzaketa eragiketarik eskuratutako zenbateko handia izan da (Vidrala S.A., 2023).

Grafikoa 16: Finantzazio jarduerako diru-fluxuaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Ustiapeneko jardura diru-fluxua, enpresak duen autofinantzaketa gaitasunarekin (AFG) batera aztertuz gero, likidezia nahikoa lortzen duela esan daiteke. UDF positiboak, likidezia sortzen duela adierazten du eta AFG positiboak berriz, likidezia hori diruzaintzan bihurtzeko ahalmena duela.

4.6. ERRENTAGARRITASUN RATIOAK

Errentagarritasunaren helburua, enpresak urte bukaeran lortutako eraitza, eraitza hori lortzeko erabilitako baliabideekin erlazionatzea izango da. Horretarako bi ratio desberdin erabiltzen dira, bakoitzak enpresaren baliabide espezifiko batzuen erabileraren errentagarritasuna aztertuko dutenak.


4.6.1. Errentagarritasun ekonomikoa

Errentagarritasun ekonomikoa aztertzeko ratio desberdinak erabili daitezke baina EBITDA (Earning Before Interests, Taxes, Depreciation and Amortization) da gaur egun enpresa gehienek erabiltzen dutena. EBITDAren helburua, enpresaren urteko mozkinak ahalik eta bariozio gutxienarekin aztertzea izango da; faktore desberdinek, interes, zerga, amortizazio eta depreziatioan eragiten duten

bariazioak ekiditeko hain zuzen ere. Beraz, errentagarritasun ekonomikoaren helburua, enpresaren emaitza egindako inbertsioekin erlazionatzea izango da.

Vidralaren urteko kontuei dagokionez, EBITDA nahiko egonkor mantendu dela ikus daiteke, urte batetik besterako aldaketak nahiko txikiak izan direlarik. Urte horietako EBITDAren bilakaera, ekitaldiko emaitzaren parekoa izan da eta horrek esan nahi duena da, lehen aipatu ditugun faktore horiek ekitaldiko emaitzan eragindako bariazioa irabaziekiko proportzionalak izan direla. ROI (Return On Investments) ratioaren laguntzaz, enpresaren aktibo totalaren erabilera lortutako EBITDArekin erlazionatzen da. Kasu honetan, Vidralaren aktiboen erabileraren efikazia jaitsiera nabarmena egon dela behatu daiteke. Hau gertatzearen arrazoi nagusia, Vidralaren EBITDAren eboluzioa egonkor mantentzea izan da aktibo totalak jasandako igoeraren aurka (17. Grafikoa).


Grafikoa 17: Ebitdaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Beste alde batetik Marjina-ren kalkulua eginez, enpresak saldutako euro bakoitzagatik lortutako irabaziak (EBITDA) aztertzen dira. Datu honen eboluzioa, negatiboa izan da berriro ere; 2020. urteko irabazien marjina lau urteetako handiena izan delarik. Ratio hau hobetu aztertuz gero, eboluzio hau gertatzearen arrazoa lehenago aipatutako EBITDAren egonkortasuna eta salmenten hazkundearen ondorioa dela esan daiteke (18. Grafikoa).

Grafikoa 18: Marjinaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Baina, zergatik gertatu da hau? Zein da salmentak hazi eta EBITDA berdin jarraitzearen arrazoa?


Galdu irabazien analisisan esan bezala, salmenten hazkundera nabarmena izan da lau urteko periodo honetan, baina ustiapeneko marjina garbiari dagokionez, jaitsiera handia gertatu da. Hau, salmenten kostuek izandako hazkundera, salmenta propioen hazkundera baino askoz ere handiagoa izan delako da eta honen ondorioz, ustiapeneko marjina garbia eta EBITDA egonkor mantentzea eragin du.

4.6.2. Errentagarritasun finantzarioa

Errentagarritasun finantzarioaren barnean, enpresaren ekitaldiko emaitza, finantzaketa tresna desberdinekiko konparatzen da ratio desberdinak erabiliz.

Enpresaren errentagarritasun finantzarioari dagokionez, errentagarritasun jaitsiera egon da ratioetako bakoitzean. Beraz, enpresaren finantzazio iturri bakoitzak izandako produktibitatearen jaitsiera bat adieraziko du. Honek ondorio desberdinak ekarri ditzake enpresarentzat. Akziodunei dagokionez, inbertitutako unitate bakoitzak duen produktibitatea jaisteak, enpresan inbertitzearen gogoak jaistean eragin dezake (19. Grafikoa).

Grafikoa 19: Errentagarritasun finantzarioa



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Enpresako barne finantzazio iturriak jasan duen igoera izango da, errentagarritasun ratioaren jaitsiera eragin duena. Barne inbertsioen kantitatea, lortutako ekitaldiko emaitza baino gehiago hazi da bilakaera osoan zehar.

4.7. KAUDIMENA


Puntu honetan, enpresak bere ohiko egitura eta jarduera aldatu gabe, dituen zorrak ordaintzeko duen ahalmena aztertzen da. Ratio hauek izen desberdinak izan ditzakete eta ikerketa hau egiteko Cesar Achingen "Ratios Financieros" lana hartu da erreferentzia moduan (Aching, 2005).

Likidezia globalari dagokionez, hobekuntza handia izan duela esan daiteke azken bolada honetako garapen prozesuan. Egia den arren, lau urte hauetan zehar ratioaren zenbatekoa bat baino handiagoa izan dela, azkeneko bi urteetan balio optimoaren tarterantz gehiago gerturatzeko joan da. Ratioaren zenbatekoa bat baino handiago izateak, epe laburreko zor guztiei aurre egiteko epe laburreko aktibo nahikoa duela adierazi nahi du; hain zuzen ere, lau urteetan zehar eman den emaitza.

Beste alde batetik, ratioak izan duen emaitzaren hobekuntzaren zergatia, bilakaera osoan zehar enpresaren aktibo korronteko partidek izandako hazkundera izan da. Izakin, bezero eta diruzaintzaren partidek (aktibo korronteko zati handi bat osatzen dutenak), hazkunde prozesu bat jasan dute lehenengo urtetik azkeneko urterako bidean, batez ere diruzaintzak; izakin eta bezeroen partidek periodo honen erdialdean izandako jaitsiera konpentsatzeaz gain, aktibo korrontearen igoera bermatu duenak (20. Grafikoa). Ikuspegi global bat izanez gero, errotazio fondoaren emaitzarekin bat

doan ratioa dela ikus daiteke, bakoitzak epe laburreko pasibo eta aktiboen arteko erlazio bat aztertzen dutelarik.


Grafikoa 20: Likidezia globalaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Ondorengoa, altxortegiak izandako aldaketa ikuskatzea izango da. Likidezia ratioa begiratzuz, epe laburreko kaudimen ratioaren joera antzekoa izan duela ikus daiteke. Izan ere, ratio hau kalkulatzeko izakinen partida eragiketatik atera behar den arren, bezero eta diruzaintzak jasandako hazkundeak zuzenean eragingo du ratioak izandako bilakaeran, honek ere gora eginez. Ikus daitekeen moduan, 2020. urtea da ratioa balio teoriko optimoen tarte barnean egon den urte bakarra, gainontzekoak tartetik kanpo egon direlarik. 2019. urtean, ratioa ez da balio teoriko optimoaren tarteko balio minimora iristen eta beraz, likidezia falta duela ondorioztatu daiteke. 2021 eta 2022. Urteetan berriz, ratioaren balioa, balio teoriko optimoaren tartearen gainetik aurkitzen da eta beraz likidezia soberan dauka, epe laburreko zorrei aurre egiteko ahalmena edukiz (21. Grafikoa).


Grafikoa 21: Altxortegiaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Erabilgarritasun ratioak, enpresaren diruzaintza partidaren egoera aztertzen du, diruzaintzak aktiboko zein zati osatzen duen ikusiz. Begirada orokor bat emanez gero, bilakaera gorakorra izan duela aipatu behar da, beti ere balio optimoaren berdina edo handiagoa izan delarik. Hemen ere, aktibo korronteko diruzaintza partidarekin dago erlaziozaturata ratioak edukitako bilakaera. Azkeneko urtean ratioaren zuzenketa bat gertatu dela ikus daiteke, jaitziera honek ratioa balio optimoetara gerturatzea eragin duelarik. Seguruena, diruzaintzaren partidak urte bera horretan jasandako egonkortzea, ratioaren zuzenketa bermatzeko estrategia bat besterik ez da (22. Grafikoa).


Grafikoa 22: Erabilgarritasun ratioaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Epe luzeko kaudimen edo kaudimen globalari dagokionez, balio optimoen gainetik mantendu da eta gainera, ratioaren balioak gora egin duelarik urtetik urtera. Puntu honetan aipatzekoa da, epe laburreko partidetan ez bezala, epe luzeko pasiboen zenbatekoa epe luzeko aktiboen zenbatekoa baino gehiago hazi dela proportzionalki. Hala ere, epe laburreko aktiboko partiden laguntzaz, ratio honen balioak gora egin du eta epe luzeko pasiboak izandako hazkundera konpentsatzea lortu du. Ratio honen egoera ikusita, hartzekodunek kobratzeko duten bermea handia dela ondorioztatu dezakegu eta enpresak handiagotzeko gaitasuna duela (23. Grafikoa).

Grafikoa 23: Kaudimen globalaren bilakaera




Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

Azkenekoa, enpresaren finantza autonomia aztertzea izango da. Hau garatzeko, zorpetze ratioak izandako eboluzioa erabili da. Zorpetze ratioak, finantzazioa lortzeko erabilitako pasibo total eta fondo propioaren zenbatekoak ia berdinak direla adierazten du.

Zorpetze ratioa geroz eta handiagoa izan, enpresak dituen zorren zenbatekoa handiagoa izango da. Lehenengo urtean, nahiko orekatuta daude bi finantzazio metodoen zenbatekoak, baina hurrengo bi urteetan, baliabide propioen igoseraren ondorioz, barne finantzaketaren igoera gertatzen da. Barne finantzazioaren igoera honek, zorpetze ratioaren jaitsieran dauka eragina, kanpo finantzazioa jaitsiz. Izan ere, kanpo finantzaketaren jaitsiera hau, hurrengo urteko epe luzeko bankuen finantzazioaren jaitsierari esker gertatu da. Hipotesietako bat, bankuen finantzazioak dituen kostu

aldakorrek jasan ditzaketen igoerak ekiditeko estrategia izan dela da. Hurrengo urtean ere, jaitsiera bat gertatzen da ratioan, baina kasu honetako jaitsiera, baliabide propioak izandako igoera erraldioz bakarrik eragina izan delarik. Azkeneko urtean, enpresak eskuratutako banku bidezko finantzaketa berri baten ondorioz, epe luzeko pasiboaren igoera egon da (Vidrala S.A. , 2023). Horrela, grafikoan ikus daitekeen azkeneko urteko zorpetze ratioaren igoera gertatu da (24. Grafikoa). Galdera da, zergatik erabili behar izan dute azken urtean banku bidezko finantzaketa? Urteko kontuetan azaltzen ez duten arren, finantzaketa kantitate handiak lortzeko era errazagoa dela azaldu behar da, baina ezin da esan benetako arrazoia denik.

Grafikoa 24: Zorpetze ratioaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, Vidralaren urteko kontuko datuak

5. KONPETENTZIAREKIKO KONPARAKETA

Vidralaren analisi orokorrarekin amaituta, jarduera berdinerazuzenduta dauden enpresa desberdinekin konparatzea gelditzen da. Konparaketa honetarako, Espainia mailan Vidralaren konpetentzia zuzenak diren bi enpresa hartu dira. Espainian beira hutseko ontziak fabrikatu eta saltzea jarduera nagusi duten entitate nagusienak Vidrala S.A. (aztertutako enpresa), Verallia Spain S.A. eta BA Glas Spain S.A. dira, fakturatutako kantitatearen arabera ordenatuta (elInforma, d.g.).

Konpetentziarekiko azterketa hau egiteko, zenbait doikuntza egin behar izan dira. Lehenengo eta behin, Vidrala talde bateratuaren datuak beste bi enpresa independenteen datuekiko konparatu dira, beraz, enpresa taldeak duen posizioa nabarmendu beharko litzateke. Analisi egoki bat egiteko, jarduera berdineraz bideratuta dauden enpresen arteko azterketa egin behar da eta kasu honetan enpresa independente bakoitzak, Vidrala enpresa taldearen jarduera guztiak garatzen ditu (Produktzioa + salmenta). Bigarrenez, analisi hau garatzeko, SABI webgunetik ateratako datuak erabili dira konpetentziatzat hartuko ditugun enpresetarako, beraz, datu hauen inguruko doikuntza batzuk egin behar izan dira azterketa egokia garatzeko. Bukatzeko, SABI-tik ateratako datuak 2021. urterainoko denbora tartera arte besterik ez zeudenez 2019-2021 urteko datuen azterketa egin da.


Puntu honen helburua, sektoreko hiru enpresa handien arteko desberdintasun nagusiak ikusi eta aztertzea izango da. Horretarako, sinpleagoa baina ulergarriagoa den analisi orokor bat egingo da ratio finantzario ekonomiko nagusiak erabiliz. Alde batetik, analisi ekonomikoari dagokionez, enpresen arteko tamaina, galdu irabazien kontuak eta errentagarritasun ratioak aztertuko dira. Beste aldetik, analisi finantzarioaren inguruan, errotazio fondoaren analisia, batz besteko heltze aroa eta ratio finantzario nagusien analisia garatuko da.

5.1. ANALISI EKONOMIKOA

5.1.1. Enpresen tamainak

Lehenik eta behin, enpresen artean dagoen desberdintasuna zein den ulertzeko, enpresen dimentsio desberdintasunak aztertuko dira. Grafikoan ikus daitezkeen moduan, Vidrala eta kompetentziaren tamainen arteko desberdintasunak ikaragarriak dira (25. Grafikoa). Tamaina honek, enpresa bakoitzak duen aktiboaren zenbatekoa adierazten du. Sektorearen aurkezpenean esan bezala, Vidrala Iberiar penintsulako beira hutsaren produkzio eta salmentan, merkatu kuotarik handiena duen enpresa da eta kompetentzia zuzenaren tamainarekin konparatuz gero, ez da harrizkekoa den zerbait. Vidralaren inguruan aztertutako datuak, enpresa taldearenak diren arren enpresa indibidualekoak izan behar, enpresa indibidualak enpresa taldeko %90-a osatzen du gutxi gora behera, beraz ez da desberdintasun handirik nabaritu emaitzaren bolumenari dagokionez (Vidrala S.A. ,2023).

Grafikoa 25: Sektoreko hiru enpresen aktiboaren tamaina




Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

Hiru enpresa hauek azken hiru urteetan partekatzen duten datu bat, enpresaren tamainaren hazkundera izan da. Hirurek dimentsio handitze bat eman izanak, sektorearen eboluzio positiboari buruz hitz egiten digu. Orokorrean, jardueraren ongizatea eta hazkundera gertatzeko lortutako finantzazio eta baliabideen gorakada egon da (25. Grafikoa).

5.1.2. Galdu irabazien konparaketa

Galdu irabazien barneko lehenengo zenbatekoa Negozio Zifra Garbia da. Bertan, enpresaren tamainagatik eragindako salmenta zifra ikus daiteke (26. Grafikoa). Izan ere, salmenta zifra, produkzio ahalmena eta enpresaren tamaina, eskutik diharduten faktoreak izaten dira normalean (behintzat entitateen arteko desberdintasuna horren handia denean). Hiru enpresek, 2020. urteko salmentetan jaitsiera bat izan dute (26. Grafikoa). Hipotesietako bat da, sektore berdinerara zuzenduta dauden enpresak direnez, inboluzio hori arrazoi berdinetatik gertatu dela den arrazoia. Vidralaren urteko kontuetan agertzen den bezala (Vidrala S.A. , 2023), Covid-19aren ondorioz bizitako pandemiaren eraginagatik izan da hau. Egia den arren, beira hutseko ontzien fabrikazioa funtsezko industrietatik onartu zela, ostalaritzaren itxierak salmenta jaitsiera hori eragin zuen.

Grafikoa 26: Sektoreko hiru enpresen negozio zifra garbia



Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

Enpresa hauek, merkatuko kuotaren gehiengoa osatzen dute. Beren salmentaren arabera eboluzioa aztertuz gero, Vidralaren salmentek, gutxienez merkatuko salmenten %62-a osatzen dutela ikus daiteke. Beste bi enpresen artean, geratzen den merkatuko salmentak bereganatzearen alde daude borrokan, batak duen salmenten igoerak, beste enpresaren salmenten jaitzian eragin zuzena duelarik (27. Grafikoa). Grafiko hauek, ez dute errealitatea isladatzen, horretarako merkatuko beste enpresen salmenten zenbatekoen beharra dagoelako. Hala ere, sektoreko hiru enpresa handienak izanda, beren artean bereganatzen duten merkatu kuotaren proportzioa irudikatu nahi izan da.


Grafikoa 27: Merkatuko salmenten proportzioaren eboluzioa



Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

Aztertzea interesgarria den beste puntu bat, enpresen salmenta kostuaren bilakaera izango da. Horretarako, salmenta kostuek negozio zifraren zein ehuneko isladatzen duten kalkulatu da eta ehuneko horien eboluzioa aztertu da. Vidralaren salmenta kostuen eboluzioa aztertzerakoan, kostu hauen igoera egon dela ikusi da. Konpetentziaren salmenta kostuek denboran zehar izan duten aldaketaren bidez, kostu hauen igoera sektore guztian eragina izan duen faktore batengatik izan den edo ez adieraziko digu. Behatu daiteken bezala, 2019. urtean, Vidralak salmenta kostuen gaineko izugarritzko abantaila dauka. 2020. urtean, BA Glass enpresak salmenta kostuen erredukzio handia egitea lortzen du Vidralaren salmenta kostuak berdinduz. Bi enpresen kostuek bilakaera berdina izan dute 2020. urtetik 2021. urterako tartean, Hala ere ezin da esan partekatzen duten faktore batengatik eraginda izan dela. Veralliaren situazioa bestalde, guztiz desberdina da. Enpresa honen salmenta kostuak %40aren inguruan mantendu dira hiru urteetan zehar. Salmenta kostuen egonkortasuna mantentzea lortu du, beste bi enpreseko jarrera desberdina izanda (28. Grafikoa).


Grafikoa 28: Sektoreko hiru enpresen salmenta kostuen bilakaera



Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

Merkataritza Marjina Garbiak, aurreko grafikoetan ikusitakoaren emaitza erreflexatzen du. Berrito ere, Vidralak sektoreko jarduera printzipalaren emaitzan duen domeinua ikus daiteke. Beste alde batetik, ondo isladatzen du salmenten kostuek 2021. urtean Vidrala eta BA Glass enpresetan duten eragina. Kostuen igoera bortitzak marjinan duen eragina argi eta garbi ikusten da bertan. Hiru enpresen salmenten noranzkoak, kostuek izandako bilakaera berdina jasan dute urte hauetan zehar (29. Grafikoa). Hau dela eta, grafiko honen emaitzatik atera daitekeen ondorioa, salmenten kostuen gestio onak duen garrantzia da. Salmenten bilakaera, merkatuaren behar eta egoeren arabera fluktuatzen duen faktore bat da, baina kostuen minimizazio egoki bat egitea, enpresaren gestioaren barnean dagoen alderdia da.


Grafikoa 29: Sektoreko hiru enpresen Merkataritza Marjina Garbia



Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

Hurrengo puntua, enpresa bakoitzaren ekitaldiko emaitzaren eboluzioa aztertzea izango litzateke. Bestalde, analisi hau garatzeko, EBITDAren azterketa egitea erabaki da ekitaldiko emaitza hartu beharrean. Horrela, ustiapen jarduerako emaitza lortuko da eta enpresa bakoitzaren bukaerako emaitzan parte hartzen duten faktore aldakorrek duten eragina ez da kontuan hartuko, konparaketa zehatzagoa izanez. Hemen behatu daitekeena da, kompetentziako enpresen lehenengo bi urteko EBITDAren emaitza nahiko antzekoa dela, MMG-aren analisisian ez bezala. Hau gertatzearen arrazoiak, ustiapen prozesuan parte hartzen duten bestelako sarrera eta gastuen eragina da, kasu honetan kompetentziako bi enpresen balantza orekatzea eragin dutenak. Vidralari dagokionez, enpresa menderatzaile moduan jarduten jarraitu du, zenbateko horiek kompetentziarenak baina askoz ere altuagoak izaten jarraitzen dutelarik (30. Grafikoa).

Grafikoa 30: Sektoreko hiru enpresen Ebitda-ren bilakaera




Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

5.1.3. Errentagarritasun ratioak

Lehenik eta behin, **errentagarritasun ekonomikoaren** ratioak jasandako beherakada behatuko da. Hau kalkulatzeko, BAI (ekitaldiko emaitza interes eta zerga aurretik) eta Aktibo totalaren arteko erlazioa erabiltzen da (UpSpain, 2023). Ratio honen bitartez, enpresaren aktiboko baliabideek irabaziak sortzeko daukaten ahalmena kalkulatu da eta honakoan, irabaziak sortzeko ahalmenaren jaitziera gertatu dela aztertu daiteke. Vidrala eta Veralliaren kasuan, norabide berdina jarraitu dute, 2020. urtean jasotako igoera txiki bat 2021. urtean jaisten bukatu da. Bi enpresa hauei dagokionez, dauzkaten inbertsioen (aktiboa) gorakadak, lortutako emaitzak baina handiagoak izateagatik izan da. Deigarria, BA Glass enpresak 2021. urtean edukitako beherakada izan da. Ratioaren aldagaiak aztertuz gero, BAI-k jasan duen jaitzieragatik izan dela ondorioztatu daiteke (31. Grafikoa).

Guztietan, Verallia izan da baliabideen erabilera egokiena egin duen enpresa, azkeneko urtean jaitziera izan arren. Vidrala, historikoki daraman ehunekoaren tartean mantendu da, aldaketa handirik izan gabe eta BA Glassek berriz, baliabideen erabilera txarra egin du azkeneko urtean, kostuen igoerak gogor eragin dietelarik. Hiru enpresek jasandako beherakadak, egindako azken urteko baliabideen erabileraren errentagarritasun eta arriskuen balorazioa egitea suposatuko die, inbertsio horiek enpresaren ongizatea ekarriko duten edo ez aztertzeko (31. Grafikoa).

Grafikoa 31: Sektoreko hiru enpresen errentagarritasun ekonomikoaren bilakaera




Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

Errentagarritasun finantzarioak, enpresako fondo propioan inbertitutako moneta unitate bakoitzagatik lortutako irabazien jaitsiera egon dela adierazten du. Zenbateko hau enpresako inbertsoreentzat oso interesgarria da, inbertitutako kantitateak sorrarazitako etekinei buruzko informazioa erraztuko dietelako (UpSpain, 2023b). Ratio hau besterik izango ez bagenu, Verallia enpresan inbertitzeko errentagarritasuna izango litzateke inbertsoreak hura finantzatzera bultzatuko lituzkeenak. Barne finantzaketa gutxiago erabilia, proportzionalki handiagoak diren irabaziak sortzeko ahalmena daukate (32. Grafikoa).

Vidralaren ratioaren emaitzak baxuagoak izatea, fondo propioan izan duen hazkundeagatik gertatu da, Hala ere, %20ko errentagarritasun tasa izatea emaitza ona da. Vidralaren egoerak eta BA Glass-en jaitsiera erraldoiak, errentagarritasun finantzarioaren ongizatea bermatzeko erabaki desberdinak hartzera bideratu ditzake bi enpresak. Errentagarritasun finantzarioaren ratioa geroz eta altuagoa izatea positiboa da entitatearentzat. Bi modutara eragin daiteke ratio honen igoera: Alde batetik, enpresaren apalankamendua igoz, aktibo eta kapital gehiago eskuratu ditzakete emaitza igotzeko asmoarekin. Beste aldetik, marjina edo errotazioaren hazkundearen bidez, prezioen igoera lortzen da, salmenten igoera lortuz (32. Grafikoa).

Grafikoa 32: Sektoreko hiru enpresen errentagarritasun finantzarioaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

5.2. ANALISI FINANTZARIOA

5.2.1. Oreka finantzarioa


Enpresa bakoitzak izan duen eboluzioa guztiz desberdina izan da eta horiek hobeto ulertzeko, aldaketak aztertuko dira. Lehenengoa, Vidralaren Errotazio Fondoaren eboluzioa da. Vidralak, segurtasun estrategia bat erabili du epe laburreko finantzazioak sortutako zorren ordainketak bermatzeko. Arriskurik ez hartzeko helburuarekin, diruzaintzaren zenbatekoa handitu eta aktibo korronteko inbertsioen zati bat pasiboko epe luzeko zorrekin finantzatzea erabaki du. Honako hau, ordainketak ez egitearen arriskua ekiditeko estrategia bat den arren, kostu igoerak ekarriko dizkio enpresari, epe luzeko zorrak garestiagoak izanez (33. Grafikoa).

Verallia dagokionez, gora beherak izan ditu bilakaeran zehar. Errotazio fondoaren emaitza positiboa izatetik, beheraka handi bat jasan zuen emaitza negatibora pasaz. Gertaera honen esanahia, Vidralarenaren guztiz aurkakoa da. Epe laburreko zorren ordainketak ez gauzatzearren arriskua dauka, ordainketak egiteko likidezia falta duelako. Guzti hau, Errotazio Fondoaren Behar eta Ustiapeneko Errotazio Fondoaren Beharretan egondako emaitza negatiboaren ondorioz gertatu da. Hurrengo urtean egoera hobetzea lortzen dute errotazio fondoaren aldaketa ikaragarria izanez. Aldaketa

ematearen arrazoiak, enpresako taldeetan egindako inbertsio eta diruzaintzaren igoerak izan dira (33. Grafikoa).

BA Glass-en eboluzioa, segurtasun estrategia bat bermatzekoa izan da. Lehenengo urtetik bigarren urterako errotazio fondoaren aldaketarekin, epe laburreko aktiboetan egindako inbertsioa behatu daiteke. Errotazio fondoaren gorakada honi esker, enpresak laburrean ordaintzeko dituen zorrei errazago egingo die aurre, arriskua txikiagoa izanez. Azkeneko urtean, jaitsiera bat gertatzen da, hornitzaileen partidak izandako gorakadaren ondorioz, baina nahiko ongi mantentzen da errotazio fondoaren emaitza (33. Grafikoa).

Grafikoa 33: Sektoreko hiru enpresen Errotazio fondoaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

Errotazio fondoaren deskribapenean esan bezala, diruzaintza errotazio fondoaren parte da. Diruzaintzaren bidez, epe laburreko aktiboen zenbatekoa manipulatu daiteke, enpresaren beharrak ahalik eta hobeto asetzen dituen estrategia bat erabiliz. Diruzaintza eskuratzeko metodoetako bat, jardura printzipaletik lortutako etekinetatik da. Jasotako kobruak, egin beharreko ordainketak baino lehenago lortuz gero, diruzaintza egoera positibo batean aurkituko dira enpresak.

Bataz besteko kobru eta ordainketa epean, hiru enpresek, diruzaintza ordainketak egin baino lehen lortzen dutela ikus daiteke. Bi denbora tarte hauen kalkulua gauzatzeko, metodologia berdina erabili da hiru enpresentzat. Salmenta eta Erosketen zenbatekoei, %21ko BEZ-a aplikatu zaie.


Kobru epea geroz eta laburragoa izan, likidezia eskuratzeko erraztasun handiagoa izango dute enpresek. Vidralari dagokionez, entitatearen analisisan esan bezala, egonkortasuna mantendu da kobru epearen eboluzioan hiru urteetan zehar, ordainketa epean jaitsiera bat egon delarik azkeneko urtean. Baina hau ona edo txarra al da?

Puntu honetan ulertu behar dena da, bi epe tarteen arteko oreka bat mantendu behar dela. Vidralaren kobru epean, salmenten bilakaera zordunen bilakaeraren eskutik doa, epea berdin mantenduz. Ordainketena berriz, eginiko erosketen eboluzioa hartzekodunena baino handiagoa izan da (34. Grafikoa).

Veralliaren egoera, deigarria den situazioa da. Kobru epea oso baxua da eta ordainketa epearekin konparatuz gero, tartearen zenbatekoak diruzaintzan flexibilitate handia ematen diola egiaztatu daiteke. Kobru epea horren txikia izatearen arrazoiak bezeroen partidaren zenbateko txikiaren ondorioz da. Enpresak saltzen duen guztia segituan erreperatzen du, aktibo korronteko partida horretan egindako inbertsioa oso txikia izanez. Beste aldetik, hipotesietako bat da, ordainketa epearen hedapena, errotazio fondoaren analisisan esandako emaitza negatiboari aurre egiteko tresna bezala erabili da, azkeneko urteko diruzaintzaren zenbatekoa igotzea eragin duelarik (34. Grafikoa).

BA Glassek izan duen joera, kobru eta ordainketa epearen handitzea izan da. Hala ere, ordainketa epearen bilakaerak izan duen hazkundera handiagoa izateak, likidezia lortzeko erraztasuna eman dio enpresari (34. Grafikoa).

Grafikoa 34: Sektoreko hiru enpresen ordainketa eta kobru epeen tartea




Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

5.2.2. Likidezia ratioak

Likidezia ratioaren barnean, likidezia globala, altxortegia eta erabilgarritasun ratioa aztertuko dira (Aching, 2005).

Likidezia globalak, errotazio fondoaren puntuan aztertutako egoera isladatzen du termino erlatiboetan. Likidezia globalaren balio optimoak, 1,5 eta 2-ren artekoak dira, 1 beharrezko likidezia muga minimoa delarik. Deigarriena, Veralliaren bigarren urteko egoera da, ratioaren balioa bat baino txikiagoa izateak likidezia falta izan duela adierazi nahi duelako. Ratio honek ondorioztatzen duena, errotazio fondoaren analisiaren berdina izango litzake beraz, aztertutzat emango da (35. Grafikoa).

Grafikoa 35: Sektoreko hiru enpresen likidezia globalaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak


Altxortegiaren bidez, aktibo korronteko bihurtgarriak zailak diren partidak (izakinak) kanpoan utziz enpresak izango lukeen likidezia kalkulatzeko da. Enpresari datu zehatzagoak emango dizkion ratioa da, izakinak likideziaren barnean likidotasun gutxien duten aktiboak direlako. Kasu honetan, altxortegiaren grafikoa, likidezia globalaren grafikoen ispilua da. Vidrala nahiko konstante mantendu da ratioaren balore optimoen barnean, azkeneko urtean balore optimo horien gainetik jarri delarik.

Igoera hau, bezeroen partidak izandako igoeragatik izan da, salmenten hazkundearekin bat doana (36. Grafikoa).

Veralliak, errotazio fondoan eta likidezia globalean izandako emaitza antzekoa izan du. Bigarren urtean ratioaren balio optimoaren azpitik kokatu da likidezia falta izan duelarik, baina azken urtean, likidezia falta horri aurre egiteko taldeko enpresetan eginiko inbertsioek likidezia falta konpentsatu dute balio optimoaren maximoa bikoiztuz (36. Grafikoa).

Ba Glassen bilakaera ere aurreko puntuko antzekoa izan da, izakinek aktibo korrontean duen eragin txikia dela eta, ez da hauen "ausentzia" handirik nabaritu. Ratio honetan izan duen aldaketa, balio optimoaren jaitsieragatik bi urtetan horien gaineratik egon izana da (36. Grafikoa).

Grafikoa 36: Sektoreko hiru enpresen altxortegiaren bilakaera




Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

5.2.3. Kaudimen ratioa

Kaudimen globalari erreparatuz gero, hiru enpresak aktibo totalaren bidez zorrak ordaintzeko ahalmena daukatela irudikatzen du. Ratioaren balio minimoa 1 da, emaitza hortik beherako zenbatekoa izanez gero, entitatea "kiebra" egoeran aurkitzen dela adierazten duelarik. Lehenengo urteko Vidralaren emaitza izan ezik, gainontzekoek minimo hori bikoizten dute, beraz, zor guztiei aurre egiteko aktibo nahikoa daukate. Emaitza hauek lortzearen arrazoia, finantzaketa propioaren erabilerari esker izan da, aktiboko inbertsioaren erdia gutxi gora behera finantzatzea lortuko dutenak. Finantzaketa propioei esker, kanpo finantzaketak izan ditzaketen interesak ekiditea lortzen da, hasiera batean gastua txikiagoa izan beharko lukeelarik (37. Grafikoa).

Grafikoa 37: Sektoreko hiru enpresen kaudimen globala




Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

5.2.4. Zorpetze ratioa

Azkeneko grafiko honek adierazten duen moduan, Vidrala eta Ba Glassen hasierako zorpetze maila oso altua da. Ba Glassen ratioa 1 baino handiagoa izateak, enpresa egoera kritiko batean aurkitzen dela adierazten du, Vidrala ere egoera kritiko horretatik oso gertu egonez. Bigarren urtean, hiru enpresek tendentzia berdina jarraitu dute, beren zorpetze ratioa jaisteko helburuarekin. Ba Glassen kasuan, epe luzeko zorren jaitsiera handia gauzatzen da, ondare garbiaren erabileraren bidezko finantzaketa bermatuz. Horrela ratioaren jaitsiera lortzen dute eta zorraren kostua jaitea ere lortuko dute. Beste bi enpresek ere, tendentzia berdina jarraitzen dute epe luzeko pasiboen murrizketak eginez, baina arrazoiren bat al dago hiru enpresek bilakaera hau jarraitzeko? Hipotesietako bat da, momentu artaraino dauzkaten zorpetze egoera altuak bultzatuta eta pandemia garaian interesek jasan zitzaizketen igoeren beldurrak bultzatuta, kanpo finantzaketaren murrizketa bat egitea erabaki dela.

Grafikoa 38: Sektoreko hiru enpresen zorpetze ratioaren bilakaera



Iturria: Norberak egina, "Sabi"-ko datuak

6. ETORKIZUNA

6.1. MERKATUAREN ETORKIZUNA

Beira fabrikazioaren industria orokorrari dagokionez, 2022. urterako 265.000 milioi dolarretako balioa gainezkatzea espero zen. Gaur egun, %4,5eko erritmo konstante bateko hazkundera espero da 2023 eta 2032. urteen artean (Pulidindi & Patel, 2022). Beirazko edukiontziei dagokionez, %5eko urteroko hazkundera espero dela dio artikuluak. Izan ere, gaur egun arte tradizionalki erabili diren plastikozko edukiontzien alternatibatzat hartu dira beirazko edukiontziak. Plastikozko edukiontzien kontaminazioa ekiditeko kanpainei esker, beiraz eginiko edukiontzien bultzada handia izan dute gizaratean; %100 jasangarriak direlako eta edukiontzi bera berrerabiltzeko aukera baitauka (Pulidindi & Patel, 2022). Hurrengo urteetako bilakaera honetan, Asiako beira sektorearen eboluzioa espero da; bertako herrialdeek azkeneko urteetan izan duten garrantzia dela eta (Pulidindi & Patel, 2022).

6.2. VIDRALAREN ETORKIZUNA

Urteko kontuetan dioden bezala, Europa eta Hego Amerikako eskaria egonkor mantentzen ari da azkeneko urteetan zehar, kontsumoko produktu askotan erabiltzen diren ontzietan esker. Enpresak 2019. urtean ezarritako helburuen planak aurrera jarduten du, lortu beharreko emaitzetara iristen ari direlarik (Vidrala S.A., 2023).

2022. urtean bizitako Errusia eta Ukrainiaren arteko gerrak, gogor eragin zuen produkzioarako beharrezkoa zen energiaren prezioetan. Honek enpresaren marjina operatiboetan beherakada bat gertatzea eragin zuen baina Hala ere, momentuko egoerari ondo egokitzea lortu zuten. Azken boladan lortutako negozioaren marjina igoera berdin mantentzea espero da 2023. urtearen hasieran (Vidrala S.A., 2023).

Enpresaren begirada, epe luzeko estrategietan dago kokatuta, beti ere bere bezeroen ongizatean pentsatzen duelarik. Inbertsioak egiteko helburua daukate enpresaren hazkunde eta dibertsifikazio prozesua bermatzeko asmoz (Vidrala S.A., 2023)

2023. urtean, enpresaren eskuratzeko berriak egon dira. Alde batetik, enpresa taldeko Encirc Limited enpresak bereganatutako instalazio berrieekin, logistika zerbitzuen hobekuntza lortuko dute Erresuma Batuko eskaintzan (Vidrala S.A., 2023).

Beste aldetik, Vidralak, Brasilgo Vidroporto S.A.ren kapital sozialeko %29,36-a eskuratu du, enpresako parte hartze minoritarioa izanez. Vidroporteren jarduera, Brasilgo merkatuko beirazko edukiontzien fabrikazio eta hornikuntza da, herrialdeko garagardo enpresa handienei edukiontziak hornitzen dizkietelarik. Enpresa hau, bere kalitatezko ontzien fabrikazioagatik da ezaguna bertan eta egindako eskuraketak, Vidralaren helburuetan dagoen epe luzeko strategiaren aurrera pausua adierazten du. Estrategia honen helburua, Brasilgo merkaturak kokatzea da eta hurrengo urteetan, Brasilgo garagardogile handienekin aliantzak indartzea (Vidrala S.A., 2023).

7. ONDORIOAK

Beiraren merkatua hazkunde egoeran aurkitzen den sektore bat da. Ikerketa guztian zehar ikusitako datu eta informazioak, eguneroko kontsumoan erabiltzen den produktu bat dela adierazten dute. Azken boladan nahiko egonkortuta zegoen produktu bat izan arren azken urteetako eta etorkizuneko hedapena espero duen merkatua da. Jasangarritasun kontzeptuak gizartean izandako eraginak, sektorearen bultzada erraldoia ekarri du. Plastikozko ontzien erabilera murrizteak, beirazko produktuen suspertzea ekarri du, inguru giroa askoz gehiago zaintzen duten produkzio sistemak ezarri direlarik.

